

Maria Ruiz Lasa

Fmaila • **Aipamena**

Kaixo, ni Maria Ruiz naiz, Beasainen jaio nintzen 2008ko ekainaren 12an.

La Salle San Jose ikastetxean ikasten dut, lehen hezkuntzako 4. maila.

Nire zaletasunak balleta, saskibaloia eta eskiatzea dira. Azken honek eman zidan ideia "Elur Panpina" idazteko.

Aipamen hau nire lagunei eta familikoei eskaintzen diet.



ELUR PANPINA

Mikel Euskal Herriko herri txiki batean bizi zen bere familia eta lagunekin. Asko gustatzen zitzaion bertan bizitzea, hiriko zarata eta jendetzatik urruti. Edonora begiratuta mendiak ikusten zituen eta goizero txoritxoek kantu alaiekin esnatzen zen. Udako arratsalde beroetatik alde egiteko, errotariaren etxe atzetik igarotzen zen errekatxoan pasatzen zituzten orduak. Batzuetan zapaburuak hartzen zituzten, beste batzuetan harriekin saltoak egiten,...

Baina Mikeli gehien gustatzen zitzaiona negua zen. Mendiak zuriz jazten ziren eta etxeetako tximinietatik kea ateratzen zen. Urte hartan ere negua aurki iritsiko zen eta hango biztanleak bazekiten dena prest eduki behar zutela ordurako. Etxeak berotzeko egurra pilatuta zuten dagoeneko, bideetatik elurra kentzeko palak eskura zituzten, baita argia joaten bazen linternak ere. Umeek era bateko prestaketak egiten zituzten: lerak, eskuzorroak, txanoak eta botak ganbaratik jaisten zituzten.

Arratsalde hartan, Mikel bere gelako lehioetik begira zegoela liluratuta gelditu zen. Urte hartako lehenengo elur-maluta ikusi zuen eta haren atzetik bigarrena eta hirugarren bat... dena zuriz estali zen arte.

Mikelek hura ikustean, elurretako arropa ziztu bizian jantzi eta bere lagunengana joan zen. Anderri, Aneri eta Mariari deitu zien elurretara jolastera joateko. Lehenik bola lehia bat egin zuten, neskak mutilen aurka, ondoren Mikeli Olentzerok ekarritako lera frogatu zuten, a zer nolako abiadura hartzen zuen aldapan behera!!! Eta azkenik Mikelen etxe aurreko zelaian, elurrezko panpin eder bat egin zuten. Mariak bere aitak baratzean erabiltzen zituen eskularruak eraman zituen, Anek bere amak Benidormen erositako lastozko pamela bat, Anderrek bere amonaren beroki zahar baten botoiak eta Mikelek bere baratzatik azenario bat eraman zuen. Hura zen panpin ederra hura, bazirudien bizia zuela.

Hurrengo goizean, Mikel bere logelako lehiotik sartzen ziren eguzki izpiekin esnatu zen. Lehiotik begiratu eta elurrezko panpina zegoen tokian ur putzu bat besterik ez zegoen, pamela eta eskularru busti batzuekin. Lagun guztiak putzuaren inguruan elkartu ziren tristuraz beterik.

Mikelen amonaren txokolate beroa baino hoberik ez zegoen tristura aurpegi horiek alaitzeko. Gainera bazekiten, hurrengo urtean ere elurra egingo zuela eta beraien elur panpina berpiztuko zela.